

Kontakizunak

Kirmen Uribe

"Kontakizunak"
Edgar Allan Poe
euskaratzailea: Koro Navarro
Ibaizabal, 2001

Idazle gutxi dago literaturaren historian Poek adinako interpretazio eta hipotesi sorrarazi duenik. Idazle gutxi liluratu dituzte Poek bezala belaunaldiz belaunaldi irakurleak eta mitomanoak. Idazleak berak ere, pertsonak, interes bizia sorrarazi du.

Jon Mirandek ekarri zuen lehenengoz Poe euskarara. Itxura handia dute elkarrena. Baudelaireri gertatu bezala, pentsa dezakegu bikia iruditzen zitzaiola Poe Miranderi. Baudelairek behintzat hala uste zuen. Poek -datzitakoa aurretik amestu izan zuela berak. Pertsonaiak, giroak, esaldiak. Baudelaire berak eta Mallarmek egin zuten Poe famako eta geroztik sekulako eragina izan du Europako literaturan, bera iparramerikarra izanagatik. Bihotz salataria, Usher etxearen hondamena eta Marie Rageten misterioa hainbat antologiatan agertu dira. Guztiak ere hainbat idazleren —artegile eta zinegileenak ez esateagatik— idatzirik gogokoenak bilakatuak, guztiak ere Koro Nabarroren bilduma honetan bilduak.

The Balde, 2002-02